

EROSKETA ZEHAZTAPENAK ETA BALDINTZAK

1. INFORMAZIO OROKORRA

Zehaztapen eta Baldintza hauek 1. Eranskinean identifikatutako SABA Taldeko (aurrerantzean "SABA") enpresek, www.saba.es Webgunearen (aurrerantzean "Webgunea") edo SABA aplikazioaren bidez (aurrerantzean "App") kontratatzeke, Partikularren eskura (aurrerantzean "Bezeroak" edo "Bezeroa") jartzen dituzten aparkaleku Zerbitzu eta Produktuak (aurrerantzean "Zerbitzua/k eta Produktua/ka") arautzen dituzte.

1. Eranskinean Bezeroak kontratatzen duen konpainiaren identifikazioa erantsiko da aparkalekuaren kokapenaren arabera. Konpainia hori izango da halaber, Webgunearen eta Apparen titularra den Saba Aparcamientos S.A. enpresarekin batera, Bezeroak emandako datu pertsonalez arduratuko dena.

Zerbitzuak eta Produktuak erostean Zehaztapen eta Baldintza hauek zein Bezeroari aplikatuko zaizkion gainontzeko baldintzak, bereziki Lege-Oharra eta, Pribatutasun eta Cookie Politika, onartu beharko ditu Bezeroak.

Bezeroak bere erosketarekin lotutako edozein gertaera edo zalantza dela eta, SABA-rekin harremanetan jarri nahi badu, 1. Eranskinean zehazten diren posta-helbideak, 662 418 060 WhatssApp zenbakia edo atclientesaba@sabagroup.com posta elektronikoa erabil ditzake.

Zehaztapen eta Baldintza hauek aplikagarriak dira Webgunean/Appen argitaratzen diren unetik aurrera eta ezingo zaizkie aplikatu, argitaratu haurretik amaitutako kontratuei. Webgunean/Appen egiten den kontratazio bakoitza kontratatzen den Zerbitzu edo Produktua erositako eta ordaindutako datan aplikagarriak diren Zehaztapen eta Baldintzek arautzen dute. Horretarako, komenigarria da Bezeroak Zehaztapenak eta Baldintzak irakurtzea, Zerbitzu edo Produktuak erabili edota kontratatu aurretik.

Bezeroak, Zerbitzua edo Produktua erosi aurretik, konforme badago Erosketa Baldintzak eta Zehaztapenak onartu beharko ditu erosi nahi duen Zerbitzua edo Produktua aukeratu ondoren, ordainketa-pantailara sartu ahal izateko. Zerbitzuaren edo Produktuaren kontratazio edota erabilera izapideak Zehaztapen eta Baldintza hauetan deskribatzen direnak dira, baita nabigazioan zehar pantailan agertzen diren baldintza bereziak ere, beraz Bezeroak adierazten du, badakiela eta onartzen duela izapide horiek Zerbitzua edo Produktua kontratatzeke beharrezkoa direla.

Webgunean/Appen eskaintzen diren Zerbitzuak eta Produktuak, haien ezaugarriak, deskribapenak eta azken prezioa, dagokien lege-bermea eta, egotekotan, Bezeroak izan ditzakeen merkataritza-bermeak pantailan agertuko dira.

SABA-k Webgunearen/Apparen bidez Bezeroei eskainiko dizkien Zerbitzuak eta Produktuak zeintzuk izango diren erabakitzeke eskubidea izango du une orotan. bera, SABA-k edozein unetan gehitu ahal izango ditu Zerbitzu edo Produktu berriak, bestelakorik adierazten ez den bitartean, Produktu eta zerbitzu horiek une horretan indarrean dauden Baldintzek eta Zehaztapenek arautuko dituzte. Halaber, SABA-k Webgunean/Appen eskaintzen diren Zerbitzuak edo Produktuak kentzeke eskubidea izango du edozein unetan.

2. BALDINTZEN ALDAKETA

SABA-k Erosketa Zehaztapen eta Baldintza hauek alde bakarretik aldatzeke eskubidea izango du edozein unetan. Erosketa Zehaztapen eta Baldintza hauen aldaketa oro Webgunean/Appen argitaratuko dira. Bezeroa erosketa egiten duen unean eta aurretik onartuta, unean indarrean dagoen dokumentu honen bertsioak arautuko du.

3. EROSKETA PROZESUA WEBGUNEAREN/APPAREN BIDEZ

Erosketa prozesuari ekiteko Bezeroa Erabiltzaile gisa erregistratuta egon beharko da Webgunean/Appean eta 18 urte baino gehiago izan beharko ditu.

Webgunean/Appean eskaintzen diren Zerbitzuak erosteko Bezeroak pantailan agertzen diren argibideei jarraitu beharko die eta erosketa onartu beharko du, argibide horiei jarraikiz.

Bezeroari erosketa prozesuan zehar agertzen zaizkion formulario desberdinak betez eta Bezeroak berariaz Zehaztapen eta Baldintza hauek eta kontratatutako Zerbitzu edo Produktuei aplikatzen zaizkien baldintza guztiak onartuz gauzatuko da kontratazioa.

Erosketa prozesuan, erosketa eta ordainketa onartzean, prozesua amaituko da eta Bezeroak SABA-ren merkataritza-proposamena eta baldintza aplikagarriak bere osotasunean onartzea suposatuko du horrek. Ondoren erosketaren baieztapen orrira berbideratuko zaio pantailan, eta bertan, Bezeroak agiria deskargatu edota inprimatu ahal izango du.

Bezeroak, erosketa egitean erreserba-zenbaki bat jasoko du (aurrerantzean "Kodea"). Kodeak kontratatutako Zerbitzuaz edo Produktuaz gozatzeko eskubidea ematen du.

Kodea osorik aldatu ahal izango da soilik. Zenbait Zerbitzu edo Produktuekin, aldaketa fisikoki egin beharko da kontratazioak adierazten duen aparkalekuan. Egoera hau kontratazio-prozesuan jakinaraziko dizugu.

Kontratutako Zerbitzuak edo Produktuak kontsumitzeko orduen edo saldoaren erosketa badira (adibidez, Tempo, Ordu-Txartela edo Euro-Txartela), lekua egotea aparkalekuen okupazio mailaren arabera izango da. Egun anitzetarako produktua erosten bada, Bezeroak aparkalekua erreserbatzeko eskubidea izango du.

Abonamenduen kasuan, SABA-k Bezeroari jakinaraziko dio posta elektronikoki bidez, kontratatutako Zerbitzua hitzartutako baldintzetan ematea posible izango ez balitz. Kasu horretan, SABA-k Bezeroaren eskura jarriko du berak aukeratzeko:

- a) Antzerako baldintzak dituen beste Zerbitzu bat (eskuragarri egongo balitz); edo
- b) Hasieran kontratatutako Zerbitzuaren erosketa prezioa itzultzea.

Halaber, abonamendua gauzatzeko, dokumentazio jakina bidali eta kontratua sinatu beharko da, erosketa prozesuan zehar adierazten den moduan.

4. PREZIOA ETA ORDAINTZEKO MODUA

Webgunean/Appean agertzen diren Zerbitzu eta Produktuen prezioak eurotan adieraziko dira eta aplikatu ahal zaizkien edozein zerga barne hartuko dute. Etxera bidali beharreko Zerbitzuen kasuan, garraio eta bidalketa gastuak produktu-entregatzei aplikatuko zaizkie eta dagokienean erakutsiko dira.

Bezeroak kontratatutako Zerbitzua edo Produktua kreditu- edo zor-txartelarekin, zein PayPal sistemaren (PayPal kontua edo ordainketa txartelarekin) edo SABA-k etorkizunean Bezeroaren eskura jar dezakeen bestelako plataformaren baten bidez ordainduko du. Horren harira, kasu bakoitzean hautatutako metodoaren arabera, Bezeroak datuak edo formularioa bete beharko ditu.

Ordaintzeko, Bezeroak pantailan agertzen diren argibide guztiak jarraitu beharko ditu eskatzen den informazioa emanez. Bezeroak datu faltsurik ez emateko konpromisoa hartzen du, izenak, helbideak edota kontaktu- edo ordainketa-xehetasunak barne, baita erosketarekin lotuta legez kanpoko jarduerarik ez ekiteko eta inork horrelakorik egiteko baimenik ez emateko ere.

Ordainketa gauzatzeko, Bezeroa ordainketa prozesatzeaz arduratuko den entitatearen webgunera

berbiduratako da. Bertan zor- edo kreditu-txartelarekin ordaindu ahal izango du modu seguruan.

Ordainketa gauzatzeko erabiltzen den ordainketa-plataformaren arabera, Bezeroak, kontratatutako Produktu edo Zerbitzuen ordainketa eta kobratze prozesu osoaz arduratuko den ordainketa-plataformaren (SABA-ren ordainketa hornitzaile gisa) baldintzak onartu beharko ditu aldeaz aurretik.

SABA-k adierazten du ez duela Bezeroak erabilitako ordainketa moduarekin lotutako datu pertsonaletara sarbiderik eta ez dituela horiek biltegitratzen. Ordainketa prozesatzen duen entitateak soilik izango du datu horietara sarbidea ordainketak eta kobratzeak kudeatzeko.

Xede horietarako emandako datu guztiak enkriptatu egingo dira, horien segurtasun maximoa bermatzeko.

5. KODEA ERABILTZEKO BALDINTZAK

Zerbitzuen edo Produktuen erosketa, erabilera pertsonalerako dela ulertzen da, Bezeroak, edo hark esleitzen duen hirugarren batek erabiltzeko. Produktuen edo Zerbitzuen erosketak kode bat sortzea inplikatzan badu, berariaz debekatuta egongo da:

- a) Kodea saltzea edo irabazi-asmoarekin erabiltzea.
- b) Kodea kopiatzea.

Kodea igortzen denean, Bezeroa izango da hura gordetzeaz eta erabiltzeaz arduratuko den pertsona bakarra eta haren erabilera ere bere erantzukizuna izango da. SABA-k ez du erantzukizunik izango Kodea galtzen bada edo hura lapurtzen badiote. Zehaztapen eta Baldintza hauetan aurreikusten diren xedeetarako erabiltzen ez bada Kodea:

- a) Kodea ezabatu ahal izango da.
- b) Edozein kasutan SABA Bezeroaren edo hirugarrenaren aurrean izan dezakeen edozein erantzukizunetatik salbuetsita geldituko da eta, halaber SABAK eskubidez dagozkion ekintza guztiak gauzatzeko eskubidea izango du.

6. UKO EGITEKO ETA ERRENBOLTSO ESKUBIDEA

SABA-k jakinarazten dizu klausula honetan zehaztutako baldintzei jarraikiz, honako Produktu edo Zerbitzuekin lotutako eskubideei uko egiteko eskubidea izango duzula, justifikatu beharrik gabe:

- a) Abonamenduak eta egun-anitzak: 14 egun naturaletako epean online kontratazioa egiten den unetik Bezeroak abonamendua edo egun-anitzak aurretik erabiltzen ez baditu. Kasu horretan, une horretatik aurrera bere eskubidea bertan behera geldituko da eta abonamendu kontratuko baldintzek arautuko dute. Ez da posible izango, egun-anitzak produktua ukatzea kontratatua izan zen lehen egunetik aurrera, izan ere, produktu hau unitate-pakete gisa merkaturatzen da eta SABA-k prezioaren gainerako onurak aplikatzen ditu unitate-kontratazio hori kontuan hartuz.
- b) Tempo-orduak, ordu-txartelak, euro-txartelak eta Saldoa T bidez: 14 egun naturaletako epean Produktua online kontratatzen den unetik aurrera Bezeroak Zerbitzua aurrez erabiltzen ez badu. Kasu horretan dagokion aparkaleku lehen egun/ordu/euroa erabiltzen duen unetik aurrera bere eskubidea bertan behera geldituko da, Zerbitzua unitate-pakete gisa merkaturatzen baita eta SABA-k prezioaren gainerako onurak aplikatzen ditu unitate-kontratazio hori kontuan hartuz. Aldaketa fisikoki aparkalekuan bertan egitea beharrezkoa duten produktuetan eta Bezeroak Zerbitzua erabiltzeko eskubidea ematen duten txartel horiek hartu baditu, ukatze eskubidea fisikoki gauzatu beharko da aldaketa hori gauzatu zen aparkaleku berdinean. Kasu horretan produktuaren zenbateko osoa itzuliko da.

- c) Sustapen kanpainak: eskaintzan, sustapenean, publizitatean edo kontratuan bertan zehazten diren baldintzek arautuko dituzte.

Uko egiteko epea Zerbitzuak edo Produktuak kontratatzen diren unetik 14 egun naturaletan iraungiko da. Uko-eskubidea gauzatzeko bezeroak jakinarazpena bidali beharko du atclientesaba@sabagroup.com helbide elektronikora, haren gaian "Baja Kontratututako Zerbitzuaren izena" idatziz kontratua berariaz ukatu nahi duela adieraziz. Horretarako, Bezeroak 2. Eranskinean dagoen ukatze-formularioa erabil dezake, hala ere ez da derrigorrezkoa formulario hori erabiltzea.

Bezeroak kontratua ukatzen badu, SABA-k e-mail bidez jakinaraziko dio ukatze hori jaso duela eta bezeroak egindako ordainketa guztiak itzuliko dizkio, inolako atzerapenik gabe eta edozein kasutan, Bezeroak SABA-ri kontratatutako Zerbitzua edo Produktua ukatzeko erabakia hartu duela jakinarazi eta 14 egun naturaletara beranduenez. Bezeroak hasierako transakzioa egiteko erabili zuen ordainketa modu berdinen bidez itzuliko dio dirua SABA-k, eta itzultze horrek ez du inolako gasturik bere gain hartuko.

Errenboltoa gauzatzat hartuko da Bezeroak, jaso eta 14 egun naturaletako epe barruan, ez badu hura ukatzen. Ukatze eskubidea gauzatzean, ukatutako Zerbitzu edo Produktuarekin lotuta SABA-k Bezeroarekin dituen obligazioak desagertuko dira.

Bezeroa kontsumitzailea eta erabiltzailea den kasuan soilik aplikatuko dira Baldintza hauek, Kontsumitzaileen eta Erabiltzaileen Defentsa Orokorrerako Legearen testu bateratua onartzen duen, azaroaren 16ko 1/2007 Errege Dekretuan zehazten den definizioari jarraikiz.

7. ERANTZUKIZUNA

SABA ez da atzerapenen edo bere obligazioak ez betetzearen arduraduna izango atzerapen edo ez betetze hori bere arrazoizko kontroletik kanpo dauden zirkunstantziengatik gertatu bada.

Zehaztapen eta Baldintza hauetan berariaz kontrakoa zehazten ez den bitartean, SABA-ren erantzukizuna Zerbitzu edo Produktuaren erosketara preziora hertsiki mugatuta egongo da.

Klausula honetan adierazten denak ez du eraginik izango Bezeroak, kontsumitzaile eta erabiltzaile gisa dagozkion eskubide legeletan, ezta Kontratua ukatzeko duen eskubidean ere.

8. PRIBATUTASUN POLITIKA ETA IZAERA PERTSONALEKO DATUEN BABESA

Zehaztapen eta Baldintza hauek onartzean, dokumentuaren hasieran aurreikusten den moduan, Bezeroak, bere Zerbitzuen edo Produktuen erabilera arautzen duen Pribatutasun eta Cookie politika ezagutzen duela eta berariaz onartzen duela adierazten du.

9. ZEHAZTAPEN ETA BALDINTZA HAUEN IRAUPENA ETA BUKAERA

Zehaztapen eta Baldintza hauek iraupen zehaztugabea izango dute.

10. ZERBITZUEN ETA PRODUKTUEN EZEZTAPENA

Bezeroak Zerbitzuak eta Produktuak ezeztatu ahal izango ditu baldintza hauei jarraikiz:

- a) Abonamenduak: abonamenduen baja aurreko hilabeteko 25. eguna baino lehen egin daiteke.
- b) Tempo-orduak, ordu-txartelak, euro-txartelak eta Saldoa T bidez: dagokionaren arabera, aparkaleku lehen egun/ordu/euroa erabiltzeak kontratua bere osotasunean exekutatzeko ondorioztatuko du eta ezingo da Zerbitzuaren zati bat ukatu, Zerbitzua unitate-pakete gisa merkaturatzen delako, non SABA-k, prezioaren gainerako onurak aplikatzen dituen, unitate-kontratazio hori kontuan hartuz.

- c) Sustapen kanpainak: eskaintzan, sustapenean, publizitatean edo kontratuan bertan zehazten diren baldintzek arautuko dituzte.

Bestalde, SABA-k Zerbitzua ezeztatu ahal izango du jakinarazpen bat bidaliz Bezeroari lotutako edota hark zehaztutako helbide elektronikora, 15 egun lehenago. Ez da beharrezkoa izango ezeztapenerako arrazoirik alegatzea, SABA-k Zerbitzua ezabatzen bada Bezeroak ez du konpentsaziorik jasotzeko eskubiderik izango. Hala ere, SABA-k kontratua denbora baino lehenago ezeztatzearen ondorioz Bezeroari, hark ordaindutako eta gozatu gabeko zenbatekoak itzuliko dizkio, hala badagokio.

Aldez aurreko abisu hau ez da beharrezkoa izango Bezeroak Webgunea/Appa edo erabiltzaile-kontua modu okerrean erabiltzearen ondorioz ezeztatu bada Zerbitzua, erabilera horrek Zerbitzua behar bezala ematea galaraz dezakeenean edo Bezeroak, beste edozein obligazio betetzen ez duenean, SABA-ren Zerbitzuez gozatzeko egin beharreko ordainketak denboraz egitea barne.

SABA-ren Pribatutasun eta Cookie Politika dokumentua adierazten da Erabiltzaileak baja egin ondoren SABA-k haren datuak nola erabiltzen dituen.

11. GATAZKEN KONPONKETA ALTERNATIBOA

Gure Webgunearen/Apparen bidez online hitzartutako kontratueterako, 524/2013 EB Erregelamenduari jarraikiz, jakinarazten dizugu kontsumoarekin lotutako gatazketarako epaitegitik kanpoko ebazpena eskatzeko eskubidea duzula Internet helbide honetan: <http://ec.europa.eu/consumers/odr/>.

12. BALIOZKOTASUNA ETA HITZARMEN OSOA

Zehaztapen eta Baldintza hauetan dagoen edozein hitzarmen baliozabetzen bada, horrek ez du eraginik izango gainontzeko klausulen baliozkotasunean eta eraginkortasunean. SABA-k bere Webgunearen /Apparen bidez eskaintzen dituen Zerbitzu eta Produktuen Zehaztapen eta Baldintza hauek, Lege-oharrak eta Pribatutasun eta Cookie Politika osatzen dute alderdien arteko hitzarmen osoa, eta gai honekin lotuta aurretik idatziz edo hitzez hitzartutako edozein hitzarmenen, ulermenen, adierazpenen, ordezkartzaren, negoziazioaren edo hitzarmen asmoren gainetik egongo da Politika hau.

13. LEGEDI APLIKAGARRIA

SABA-ren eta Bezeroaren arteko harremana, Espainiako legediak arautuko du beti. Legez, kontrakoa zehazten ez bada, SABA-ren eta Bezeroaren arteko harremana indarrean dagoen Espainiako araudiak arautuko du eta gerta daitekeen edozein gatazka Bartzelonako Epaitegi eta Auzitegietan (Espainia) edo aplikagarria den indarrean dagoen araudian zehaztutako Epaitegi eta Auzitegietan konponduko da.

Data: 2020ko abenduak 1

1. ERANSKINA: SABA TALDEAREN KONPAINIAK

Sociedad	País	NIF	Domicilio social	Domicilio fiscal
Saba Infraestructuras, S.A.	España	A65550311	Av. Parc Logístic, 22 - 08040 Barcelona	Av. Parc Logístic, 22 - 08040 Barcelona
Saba Aparcamientos, S.A.	España	A08197931	Av. Parc Logístic, 22 - 08040 Barcelona	Av. Parc Logístic, 22 - 08040 Barcelona
Societat d'Aparcaments de Terrassa, S.A.	España	A61597183	Plaça Vella, Aparcam. Subsuelo s/n 08221 - Terrassa (Barcelona)	Av. Parc Logístic, 22 - 08040 Barcelona
Saba Aparcamet de Santa Caterina, S.L.	España	B64359573	Av. Parc Logístic, 22-26 - 08040 Barcelona	Av. Parc Logístic, 22 - 08040 Barcelona
Saba Park, S.L.	España	B66101775	Av. Parc Logístic, 22 - 08040 Barcelona	Av. Parc Logístic, 22 - 08040 Barcelona
Saba Car Park S.L.U	España	B66248774	Av. Parc Logístic, 22 - 08040 Barcelona	Av. Parc Logístic, 22 - 08040 Barcelona
Barcelona d'Aparcaments Municipals, S.A.	España	A66383902	Av. Parc Logístic, 22 - 08040 Barcelona	Av. Parc Logístic, 22 - 08040 Barcelona
Aparcamiento Gran Bulevar, S.L.	España	B74445784	C/ Victor Chavarri, s/n (Aparcamiento Gran Bulevar) - 33001 Oviedo (Asturias)	Av. Parc Logístic, 22 - 08040 Barcelona
Saba Aparcamiento Delicias, S.L.	España	B-09779257	Av. Parc Logístic 22-26 - 08040 Barcelona	Av. Parc Logístic 22-26 - 08040 Barcelona

2.ERANSKINA: UKATZE-FORMULARIOA

Kontratua ukatu nahi baduzu soilik bete eta bidali behar duzu formulario hau.

– Norentzat:

[ENPRESAREN IZENA SABA]

Helbidea: Avda Parc Logistic, 22-26, 08040 Barcelona

Helbide elektronikoa:

–Idatzi honen bidez jakinarazten dut/dugu (*) zerbitzuaren erosketa-kontratua (*) ukatu nahi dudala/dugula (*)

- Erreserba-zenbakia (*)

– Eskaera jasotzen den eguna: (*)

– Kontsumitzailearen eta erabiltzailearen edo kontsumitzaileen eta erabiltzaileen izena: (*)

– Kontsumitzailearen eta erabiltzailearen edo kontsumitzaileen eta erabiltzaileen helbidea: (*)

– Kontsumitzailearen eta erabiltzailearen edo kontsumitzaileen eta erabiltzaileen sinadura(*formularioa paperean aurkezten bada soilik*)

– Data

Sinadura